



EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 8koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena (lehiaketa-oposizioa Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez deitu zen)

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez (2019ko azaroaren 26ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegora sartzeko lehiaketa-oposiziorako deia egin zen.

Eskabideak betetzeko epea amaitu ondoren, aipatutako deialdiak 4. oinarrian xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda (lehiaketa-oposizioa Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez deitu zen).

2. artikulua.- Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazte aldera, Hezkuntza Saileko Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «2019ko EPE. Hezkuntza Ikuskaritza» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) - «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/> - 2019ko EPE. Hezkuntza Ikuskaritza» - «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

3. artikulua.- Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei eskatzen zaizkien betekizunak beteta dituztela aitortzen zaienik. Deialdiaren 10. oinarriak xedatutakoari jarraikiz, gaindituz gero aurkeztu behar dituzten agiriak ikusita interesdun batek eskatutako betebeharren bat ez duela betetzen egiaztatzen bada, prozedura honetan parte hartetik ondoriozta litezkeen eskubide guztiak galduko ditu.

4. artikulua.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen honen aurka, hamar egun balioduneko epean, ebazpena argitara eman eta biharamunetik hasita, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango dute zerrendatik kanpo uztea eragin duen akatsa. Halaber, datu pertsonaletan akatsak atzeman dituzten izangaiek akatsak daudela adierazteko aukera izango dute epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 8a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.